

ELE

Eragin linguistikoaren ebaluazioa

Zigor Etxeburua (*Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zuzendaria*¹)
zetxeburua@gipuzkoa.net

Maren Belastegi (*Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko lehendakaria, UEMA*)
lehendakaria@uema.eus

Sarrera-data: 2015-03-30 | Onartze-data: 2015-06-25

Laburpena. Eragin linguistikoaren ebaluazioa (ELE) Gipuzkoako Foru Aldundiak 2012an abian jarritako proiektua da. Bere xedea, lurralde eremu jakin bateko (auzo, herri, hiri, eskualde) proiektu eta jarduera pribatu zein publikoek bertako errealitate linguistikoan izan ditzaketen balizko eraginak aurreikustea, identifikatzea, ebaluatzea da, eta euskararen eta euskal hiztun elkartearen egoerari kalterik eraginez gero, horiek murrizteko eta aurrea hartzeko neurriak hartzea. Egitasmoaren aplikazio eremua, bereziki, euskararen arnagune diren herri euskaldunak dira, egoera soziolinguistiko onean dauden eremuak babesteko, nahiz eta gainerako eremuetan ere aplikatu ahal izango den. Artikulu honetan, ELEren ebaluazio prozedura aurkeztuko da, urratsez urrats, eta ebaluazioaren ondorioen arabera haurtu beharreko neurrien jarraipena egiteko hainbat irizpide ere eskainiko dira. • **Hitz gakoak:** arnagunea, prebentzioa, eragin linguistikoa, lehen hizkuntza, etxeko erabilera, hizkuntza gaitasuna.

Abstract. The Influence of Language Assessment (ELE) is a project set up by the Chartered Provincial Council of Gipuzkoa in 2012. It seeks to anticipate, identify and evaluate the possible influences that could be exerted by private and public projects and activities on the local language reality, and should they exert a harmful effect on the situation of Basque and the community of Basque speakers, to implement measures to limit them and remain one step ahead of them. Basque-speaking localities that are breathing spaces for Basque in particular are the sphere of application of the project to protect the areas that are in a good sociolinguistic situation, even though it could be applied in all the other areas. This article presents the ELE's evaluation procedure step by step, and also offers a number of criteria for monitoring the measures that will need to be taken in the light of the conclusions of the evaluation. • **Key words:** breathing space, prevention, language influence, first language, use in the home, language aptitude.

1. EGITASMOAREN ZERGATIA

I

Gipuzkoa da Euskal Herriko herrialderik euskaldunena, euskaraz bizi ahal izateko baldintzarik egokienak dituena.

Gipuzkoaren ezaugarri garrantzitsua da bere herri gehienetan euskaraz dakitenak gehiengo direla²: biztanleen %70 edo gehiago euskalduna duten 56 herri eta 5 eskualde ditu, eta herritarren erdia baino gehiago euskaldunak diren 82 herri eta 10 eskualde.

Udalerrri euskaldunak euskaldunen proportzio handia duten herriak eta auzoak dira, euskaraz egunero normaltasunez eta naturaltasunez bizi direnak. Haietan euskarak betetzen ditu edozein hizkuntzak betetzen dituen funtzioak: lana, familia bizimodua, lagunartekoa, administrazioarekiko harremana... Proportzioz euskaldunak gehiengo diren udalerriotan, herritarrek euskara naturaltasunez erabiltzen dute beren komunikazio-behar gehienetarako. Euskaraz bizi diren udalerrriak onuragarriak dira gure hirientzat eta Euskal Herri osoarentzat ere, euskara hain zabaldua ez dagoen tokientzat eredu eta arnasa direlako. Horregatik, arnagune dira gure hizkuntzarentzat.

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) herri euskaldunen zati esanguratsu bat hartzen du. Guztira, 73 udalerrrik osatzen dute mankomunitatea eta haietatik 39 Gipuzkoan daude. UEMA mankomunitatea osatzen duten herriek egiturak, egitasmoak eta baliabideak osatu eta eratu dituzte, euskarari funtzio guztiekin eusteko asmoz.

Hala ere, Gipuzkoan badira aldeak hiriburu inguruaren eta barnealdearen artean, euskararen ezagutzaren nagusitasuna ez da guztiz homogenea. Bi eremu soziolinguistiko handitan banatu daiteke herrialdea:

— Ipar-ekialdea: biztanleen %57. Lasarten hasi eta Irunerainoko eremuan biztanleen %42 da euskalduna. Tartean badaude euskaldun kopuru handia duten herriak (Oiartzun, %74; Astigarraga eta Hondarribia, %60).

— Hego-mendebaldea: biztanleen %43. Euskaldunen proportzioa handia da (biztanleen %65), herri handi batzuetan proportzio hori jaisten den arren (Zumarraga %46; Andoain eta Eibar %52; Arrasate eta Beasain %55).

Gainera, gune soziolinguistiko euskaldunenetan geldialdi bat sumatzen ari da: euskaldunen proportzioan galdu dute Gipuzkoako 39 herrik,

Gipuzkoa da Euskal Herriko herrialderik euskaldunena, euskaraz bizi ahal izateko baldintzarik egokienak dituena.

Gipuzkoaren ezaugarri garrantzitsua da bere herri gehienetan euskaraz dakitenak gehiengo direla: biztanleen %70 edo gehiago euskalduna duten 56 herri eta 5 eskualde ditu, eta herritarren erdia baino gehiago euskaldunak diren 82 herri eta 10 eskualde.

Gune soziolinguistiko euskaldunenetan geldialdi bat sumatzen ari da: euskaldunen proportzioan galdu dute Gipuzkoako 39 herrik, eta euskararen kale erabileraren datuetan ere sumatu da gelditzea. Adituen iritziz, euskaraz bizitzeko baldintzen aldakortasuna handia da eta pertsonen edota erakundeen jardunaren eraginpekoa da.

eta euskararen kale erabileraren datuetan ere sumatu da gelditzea. Adituen iritziz, euskaraz bizitzeko baldintzen aldakortasuna handia da eta pertsonen edota erakundeen jardunaren eraginpekoa da. Adibidez, hirien eta herrien geografian egindako aldaketek hizkuntzen garapenean eragin dutela nabarmentzen ari dira hizkuntzalariak. Horregatik, euskaraz bizitzeko baldintzak sortzeko eta bitartekoak jartzeko, aspektu sozial guztiak kontuan hartu behar dira, lurraldearen garapenarenak eta antolaketarenak, eta hirigintzarenak barne.

Mendekotasun egoeran dago euskara, eta arnaguneak behar ditu, bere funtzio guztiak mugarik gabe, askatasunez, bete eta garatzeko lekuak. Eusko Jaurlaritzak berak nabarmentzen du hizkuntza batek, garatuko bada, bera nagusia den esparruak behar dituela: *“Arnagune horiek zaindu, sortu eta, ahal balitz, hedatu ezean, alferrik izango da, seguruenera, gainerako ahalegin oro. Horrenbestez, lehentasunezko trataera garbia eman beharko zaie euskararen arnaguneei XXI. mende hasierako hizkuntza politikan”*.

Gipuzkoako Foru Aldundiak bat egin nahi izan du herrialdearen errealitate soziolinguistiko horrekin, bai bere hizkuntza jardueretan, bai euskara sustatzeko egindako ekimenetan. Horregatik, Foru Aldundiak euskaraz bizitzeko eskubidearen alde lan egin du 2011-2015 legealdian, gure hizkuntzari lehentasuna emanaz eta euskaraz bizitzeko baldintzak sortuz eta bitartekoak jarritz.

Foru Aldundiak ezarri duen hizkuntza-politika berriari esker, euskaldunon hizkuntza-eskubideen bermeak gidatu du Aldundiaren jardueran, euskararen benetako ofizialtasuna garatzeko, jendartean harreman parekideak lortzeko eta gizarte kohesioari laguntzeko. Gainera, euskara lehenesten duen hizkuntza-politika berria garatu du, bi hizkuntza ofizialen arteko berdintasuna ekarriko duen egoera lortzeko, eta errazteko, euskalduneri, euskararen erabilera, Aldundiaren zerbitzuak erabiltzean.

Euskaraz bizitzeko baldintzen aldakortasuna murrizteko, bere esku-meneko egitekoetan prebentzioaren ikuspegia barneratzeari ekin dio GFAk, azken helburua izanik hizkuntza kudeaketaren aurreikuspena egitea edozein jardueratan, diseinu fasetik bertatik, eta euskara osasuntsu dagoen egoeretan atzerapausoak saihestea. Ildo horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) eta Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak lankidetzan hitzarmena sinatu zuten 2012ko maiatzean udalerrri euskaldunak, euskaldun kopuru handia dutenak, zaintzeko, sustatzeko eta hedatzeko.

2. EGITASMOAREN XEDEA

I

Lurralde eremu (auzo, herri, hiri, eskualde) jakin bateko proiektu eta jarduera pribatu zein publikoek bertako errealitate linguistikoan izan ditzaketen balizko eraginak aurreikustea, identifikatzea, ebaluatzea, eta euskararen eta euskal hiztun elkartearen egoerari kalterik eraginez gero, horiek murrizteko eta aurea hartzeko neurriak hartzea da proiektu honen xedea.

Dinamika sozialak, politikoak, akademikoak eta juridikoak abiatu dira, euskararen arnaguneak zaintzen, sustatzen, indartzen eta hedatzen laguntzeko. Izan ere, udalerrri euskaldunek euskaraz bizirik irauteko, soziolinguistikoki diren modukoak izaten jarrai dezaten, beharrezkoa da, besteren artean:

- Erakunde publikoetan prebentzioaren ikuspegia txertatzea, garatzen duten ohiko jarduerak kalterik ez eragiteko gune euskaldun horien euskarazko gizarte bizitzan eta kultur garapenean.
- Arnaguneak ugaritzea, euren inguruetara hedatuz. Normalizazio prozesuaren ibilbide naturala hori baita, hain zuzen, arnagune izan daitezkeen eremuak arnagune bilakatzea.
- Arnaguneen funtzioa, garrantzia eta balioa azpimarratzea eta beren garapen iraunkorra bermatzeko premia jendarteratzea; batez ere arnagune horietako herritarren artean, baina baita gainerako euskal herritarren artean ere, horretarako, komunikazio- edota informazio-dinamikak bultzatuz.
- Udalerrri euskaldunenak euskara normalizatzeko estrategiaren erdigunean kokatzea.

Neurri horien bidez, euskara eta euskararen lur-gunea berrosatzeko bidean jauzi nabarmena egin nahi da. Testuinguru honetan, egitasmonek lan ildo juridiko bat bultzatu du; horren bidez *prebentzioaren ikuspegia txertatu nahi da administrazioen jardunean* eta, horretarako, arau egitasmonek bat zehaztu, herri aginteek beren eraginpeko esparruetan ezarriko dutena. Arau horren bidez neurtu nahi dira erakundeen egitasmoei udalerrri euskaldunetako euskararen egoeran izan dezaketen eragina, balizko kalteak neurri zuzentzaileen bidez murrizteko beharra ezarritz.

Lurralde eremu (auzo, herri, hiri, eskualde) jakin bateko proiektu eta jarduera pribatu zein publikoek bertako errealitate linguistikoan izan ditzaketen balizko eraginak aurreikustea, identifikatzea, ebaluatzea, eta euskararen eta euskal hiztun elkartearen egoerari kalterik eraginez gero, horiek murrizteko eta aurea hartzeko neurriak hartzea da proiektu honen xedea.

Herri erakundeen egitasmoek udalerrri euskaldunetako euskararen egoeran izan dezaketen eragina aurreikusteko, neurtzeko eta balizko kalteak neurri zuzentzaileen bidez zuzentzeko edota murrizteko, Foru Aldundiak eta Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak prebentzioaren ikuspegia administrazioen jardunean txertatuko duen arau egitasmo bat zehaztu dute, lankidetzan, eta bakoitzak bere eraginpeko esparruetan ezartzeko urratsak eman ditu.

3. EGITASMOAREN EDUKIAK

I

Herri erakundeen egitasmoek udalerrri euskaldunetako euskararen egoeran izan dezaketen eragina aurreikusteko, neurtzeko eta balizko kalteak neurri zuzentzaileen bidez zuzentzeko edota murrizteko, Foru Aldundiak eta Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak *prebentzioaren ikuspegia administrazioen jardunean txertatuko duen arau egitasmo bat* zehaztu dute, lankidetzan, eta bakoitzak bere eraginpeko esparruetan ezartzeko urratsak eman ditu.

Araudiaren oinarrian dagoen sistemak jasotzen ditu:

— Administrazioen jardueren inpaktu linguistikoak neurtuko dituen *Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa* (aurrerantzean *ELE*). Eragin linguistikoa horrela definitu dugu: proiektu edo jarduera batek eremu jakin batean sortzen duen egoera soziolinguistikoaren aldaketa. Eragin linguistikoa hizkuntza batentzat positiboa, negatiboa edo neutroa izan daiteke.

— Balizko kalte horiek saihestu edo murrizteko neurri zuzentzaileak eta horien ezarpenaren segimendua.

4. EGITASMOAREN IRISMENA

I

Egitasmo honen aplikazio eremua, bereziki, euskararen arnasgune diren herri euskaldunak dira, helburua izanik egoera soziolinguistiko onean dauden eremuak babestea.

Hala ere, gainerako eremuetan ere aplikatu ahal izango litzateke, bereziki egoera soziolinguistikoan aurrerapausoak ematen ari den eremuetan, horrela erabakiz gero.

— ERAGIN EREMUAK

– Lehendik abian diren proiektuak eta jarduerak. Aurrerantzean egingo diren proiektuak eta jarduerak.

— ERAGIN ALDIAK

– Proiektuaren jarduerak berak eragiten duena; garatzen den proiektuaren edo jardueraren eragin denbora.

— JARDUERAREN ERAGILEAK

- Eragile pribatuen egitasmoak: norbanakoen eta enpresen jarduerak, produktuak eta zerbitzuak.
- Eragile publikoen egitasmoak: arauak, jarduerak, plangintzak, diru laguntzak... Proiektu bakoitzean instituzio bakoitzaren eskumenaren arabera: udala, Aldundia, Jaurilaritza, estatua...

— JARDUERA MOTAK

- Etxebizitza, hirigintza
- Oinarrizko zerbitzuak: hezkuntza, osasungintza... jarduera sozio-ekonomikoa/enplegua, ekipamenduak, merkataritza eta aisialdia
- Garraioa (eskola-garraioa, larrialdi-garraioa/anbulantzia zerbitzua, taxi zerbitzua,...)
- Espazio publikoa (lurraldearen antolamendua, eraikinen kopapena...)
- Gizarte eta kultur ekimenak.

5. ERAGIN LINGUISTIKOA NEURTZERAKOAN KONTUAN HARTZEKOAK DIREN DATUAK ETA INDIZEAK

I

Eragin linguistikoaren balorazioak jaso aurretik, eragin eremuari dagokion informazio garrantzitsua aztertzeak ondorengo lana erraztuko digu.

Kontuan hartzekoak diren datuak hauek dira: datu demografikoak, soziolinguistikoak eta sozioekonomikoak.

Kasuan kasu, aztertu beharko da zein informazio jasotzea den egokiena.

— Demografikoak: biztanle kopuruaren bilakaera, haur-indizea, zahartze-indizea, atzerritar-indizea.

— Ekipamenduak eta azpiegiturak: kultur-etxea, anbulatorioa, ikas-tetxeak, parkeak, bidegorriak, aisialdirako guneak, zinema, txokoak, gazteen lonjak.

— Adierazle linguistikoak: euskara gaitasuna, erabilera, etxeko hizkuntza, lehen hizkuntza, adinaren, generoaren eta jaioterriaren arabera.

— Euskararen inguruko egituraketa eta baliabideak: UEMA, euskara planak, euskara zerbitzuak, araututako irakaskuntza, komunikazio hizkuntza.

Egitasmo honen aplikazio eremua, bereziki, euskararen arnasgune diren herri euskaldunak dira, helburua izanik egoera soziolinguistiko onean dauden eremuak babestea.

Hala ere, gainerako eremuetan ere aplikatu ahal izango litzateke, bereziki egoera soziolinguistikoan aurrerapausoak ematen ari den eremuetan, horrela erabakiz gero.

Eragin linguistikoaren balorazioak jaso aurretik, eragin eremuari dagokion informazio garrantzitsua aztertzeak ondorengo lana erraztuko digu.

Kontuan hartzekoak diren datuak hauek dira: datu demografikoak, soziolinguistikoak eta sozioekonomikoak.

— Sozioekonomikoak: tokiko ekonomia jarduerak, langabezia tasa.

Informazio osogarria jasotze aldera, hiru indize esanguratsu kalkulatzeko aukera izango da ebaluazio prozesuan zehar.

— **Hauskortasun indizea:** indize horren helburua da edozein esku-hartzek eragin eremuaren egoera soziolinguistikoa zer nolako neurrian hauts dezakeen neurtzea.

— **Planaren eraginaren indizea:** Indize horren helburua da esku-hartzearen barruko ekintzek hizkuntzarengan izango duten eragina neurtzea.

— **Euskararen ezagutzaren proiektzio indizea** – etxebizitzak eraikiko diren kasuetarako - Indize horrek bizitegi asentamendu berriek euskararen ezagutzan izango duen eragina kalkulatu du.

6. ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA EGITEKO PROZEDURA

I Prozedura hau zehaztu da, proiektuen eragin linguistikoa ebaluatzeko:

6.1 Proiektuak hizkuntza-txostena behar duen zehaztu: galdetegi bat bete horretarako

6.2 Baiezkoan, proiektuaren sustatzaileak errealitate linguistikoari buruzko txostena prestatu, eta bertan jaso zer aldaketa eragingo dituen proiektuak errealitate horretan eta zein neurri zuzentzaile aplikatuko den.


6.3 Jarraipen batzordeak hizkuntza-txostena baloratu, eta iritzia eman. 3 aukera:

- Aldeko txostena
- Aldeko txostena, neurri zuzentzaileekin
- Kontrako txostena

6.4 Neurri zuzentzaileetan finkatutako epeak kontuan hartuta, proiektuaren sustatzaileak jarraipen fitxak bete eta jarraipen batzordeak baloratu:

- Aldeko txostena
- Aldeko txostena, neurri zuzentzaileekin
- Kontrako txostena, eta zigor-neurriak, behar izanez gero

PROIEKTUEN ERAGIN LINGUISTIKOA EBALUATZEKO PROZEDURA



URRATSEZ URRATS

6.1 Galdetegia erantzun

Proiektuak hizkuntza-txostena behar duen zehaztu

Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa ezinbestez egin beharko da eragin eremua arnasmunea bada. Arnasmunetzat hartuko da %70etik gorako euskararen indizea duen udalerria.

Eragin linguistikoa identifikatzeko kontuan hartu beharreko alderdiak:

- Biztanleen/erabiltzaileen euskararen ezagutza - Euskaldun kopurua
- Biztanleen/erabiltzaileen euskararen erabilera
- Eragin eremuaren hizkuntza paisaia (ahozkoa + idatzizkoa)
- Jardueren/zerbitzuen komunikazioa
- Adierazpen publikoetako euskararen erabilera

- Jardueren/zerbitzuen euskarazko eskaintza
- Elkarreentako hizkuntza erabilera
- Hezkuntza ereduak
- Komunitatearen gizarte eta kultura bizitza

Euskararen ezagutza: proiektu edota jardueraren eraginez tokiko komunitateak biztanle, erabiltzaile, langile... euskararen ezagutza tasa aldatuko ote den aztertu nahi da. Hainbat faktore egon daitezke aldaketa aurreikusteko: etxebizitzak ugaritzea, bide azpiegiturak aldatzea, zerbitzuak ugaritzea, lantegiak eraikitzea...

Euskararen erabilera: proiektu edota jardueraren eraginez tokiko komunitateak biztanle, erabiltzaile, langile... euskararen erabilera tasa aldatuko ote den aztertu nahi da. Hainbat faktore egon daitezke aldaketa aurreikusteko: biztanleak, bisitariak, erabiltzaileak, langileak, etab. Ugartzea; eskainiko diren zerbitzuetan euskara ez aintzat hartzea.

Hizkuntza paisaia: paisaia horretan ikus edo entzun dezakegunak osatzen du hizkuntza paisaia; horiek idatziak edo ahozkoak izan daitezke. Idatziak: errotuluak (eraikin barrukoak edo kanpokoak izan daitezke), kartelak, seinaleak, webgunea... Ahozkoak: bozgorailuetatik entzuten duguna, musika...

Komunikazioak: proiektua gauzatuko duen eragileak eskaintzen dituen zerbitzuen edo jardueren berri ematerakoan, hizkuntzari dagokionez, nola jokatu den aztertuko da eta ordura arteko egoera aldatuko ote lukeen. Komunikazio horiek izan daitezke ahozkoak zein idatzizkoak.

Adierazpen publikoak: proiektua gauzatuko duen eragileak erabakien, iritzien berri eman beharko badu, horietan hizkuntzari dagokionez nola jokatu den aztertu nahi da eta horrek zein eragin izango duen eremu horretan.

Jardueren/zerbitzuen euskarazko eskaintza: proiektua gauzatuko duen eragileak eskaintzen dituen zerbitzuen edo jardueretan euskarazko eskaintzak izango duen presentzia aztertu nahi da eta ordura arteko egoera aldatuko ote lukeen.

Elkarreentako hizkuntza erabilera: eragin eremuan elkarreak egongo balira, horietan hizkuntzari dagokionez, proiektuaren edota jardueraren eraginez aldaketarik emango den aztertu nahi da. Elkarre berriak sor daitezkeelako, elkarreentara jende berria tor daitezkeelako...

Hezkuntza ereduak: tokiko eskoletako hizkuntza eruedetan aldaketarik ematea aurreikusten den aztertu nahi da.

Komunitatearen gizarte eta kultura bizitza: proiektua edota jarduera egingo den tokiko komunitatearen (biztanleak, erabiltzaileak, langileak...) ohiturak: aisialdia dela, gastronomia dela, espresio kulturalak dira..., harremantzeko moduak ahozko komunikazioan izan dezakeen eragina, bertan edota kanpora joango diren aisialdiaz gozatzea..., aztertu nahi dira.

Proiektuen eragin linguistikoa baloratzeko atributuak hauek izango dira:

- Eraginaren izaera edo mota (positiboa, negatiboa edo neutroa)
- Ondorioa: eragin zuzena edo zeharkakoa
- Eraginaren intentsitatea: suntsipen maila, pertsonen arteko komunikazioan eragin zuzena duen kasuetan intentsitate maila altuena jasoko da.
- Hedadura: eragina duen eremua (auzoa, herria, eskualdea...)
- Unea: eragin aldia unean bertan edo aurrera begira
- Berreskuragarritasuna: giza baliabide bidezko berreraikitzea
- Aldizkakotasuna: eraginaren agertze erritmoa

Eragin Linguistikoaren Indize Orokorra

Horrela kalkukatzen da Eragin Linguistikoaren Indize Orokorra:

$$G = + (3 \text{ Intentsitatea} + 2 \text{ Hedadura} + \text{Unea} + \text{Eragina} + \text{Aldizkakotasuna} + \text{Berreskuragarritasuna})$$

Eraginaren garrantziaren balioak 12eta 80 bitartekoak dira. Honela sailkatzen dira:

- **Garrantzi gutxikoak** (edo bateragarriak): 20 puntutik behera
- **Moderatuak:** 20 eta 40 bitartean
- **Larriak:** 40 eta 60 bitartean
- **Kritikoak:** 60 puntutik gora

6.2 Indize osagarrien kalkulua

Informazio osagarria jasotze aldera, datu esanguratsuak emango dizkigute indize hauek:

- Hauskortasun indizea

Proiektuaren sustatzaileak eragin linguistikoaren txostena idatziko du, beharrezkoa denean. Txostenak bost atal nagusi izango ditu: sarrera, proiektua bera, zenbait datu esanguratsu, eraginaren azalpena eta proposaturiko neurri zuzentzaileak.

- Esku-hartzearen eraginaren indizea
- Euskararen ezagutzaren proiektzioaren indizea

Ebaluazioak izan ahalko lituzkeen emaitzak:

- Bideragarria
- Bere horretan bideragarria neurri zuzentzaileekin
- Ez bideragarria

6.3 Eragin linguistikoaren txostena

Proiektuaren sustatzaileak eragin linguistikoaren txostena idatziko du, beharrezkoa denean. Txostenak bost atal nagusi izango ditu: sarrera, proiektua bera, zenbait datu esanguratsu, eraginaren azalpena eta proposaturiko neurri zuzentzaileak.

0. Sarrera

Proiektuaren azalpen orokorra

1. PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Zein azpiegitura eraikiko da? / Zein zerbitzu mota eskainiko da?

Zenbat denbora beharko da proiektua burutzeko?

Zein hedadura izango du?

Zein onura ekarriko dio inguruneari?

Tokiko beharrei erantzuten al dio proiektuak?

Zein arrazoi dela medio erabaki da proiektua egitea?

2. EBALUAZIO PROZESUA:

Ebaluazio prozesua zein izan den azalduko da: balorazio batzordean parte hartu duten kideen deskribapena, egindako ebaluazio-lanaren ibilbidea, jaso diren datuak zeintzuk izan diren, erabilitako metodologia etab.

3. ERAGIN LINGUISTIKOA

Azal ezazu proiektuaren eragina zein izango den adierazleak oinarri hartuta. Aldagai horien ondorioz, zein aldaketa emango dira eremu horretan? Horrek zertan alda lezake egoera soziolinguistikoa?

Proiektuak hizkuntzaren erabilera eta tokiko ekimenak sustatzeko sortuko dituen aukerak.

4. ONDORIOAK

Aztertutako adierazleen indizeak eta informazio osagarria eskaintzen diguten indizeak jasota, ondorio orokorrak aterako dira: eragin

mailaren balorazioa, adierazle kritikorik badagoen, lehentasunez neurri zuzentzaileak non jarri beharko lirartekeen...

5. NEURRI ZUZENTZAILEAK

Eragin posible horiei zein neurri zuzentzaile proposatzen zaien azaldu, neurri zuzentzaileen karta kontuan hartuz.

Neurri zuzentzaileen karta-eredua proposatzen da. Neurri zuzentzaileen karta-eredua da, tokian tokiko errealitateari erantzun behar diotelako. Agiri horrek neurri positiboak edo sustapenekoak jasoko ditu; neurri baztergarriak dira, baina, berdintasun eta proportzionaltasun printzipioetan oinarriturik. Adibidez: hitzarmenak, harre-ra-planak, informazio/sentsibilizazioa, aholkularitza, diru laguntzak, sustapena...

Aldez aurreko neurri zuzentzaileak

Proiektua egin aurretik ezarri beharrekoak:

— Egingo den proiektuen kopurua mugatzea, baldintza bereziak ezarriz arau subsidiarioetan. Kopuruaz gain, azpiegitura motak eta kokapena ere kontuan hartzea.

— Proiektua denboran luzatzea, inpaktua leunagoa izan dadin edo ezarri ahala neurriak hartu ahal izan daitezen.

— Etxebizitza libreen sustatzaileei eskatzea lehen-lehenik tokiko komunikabideetan eman dezatela eskaintzaren berri.

— Babestutako etxebizitzaren kasuan, herritarren beharrak kontuan hartzea, eta euskararen ezagutza baloratzea/eskatzea (legeak horretarako aukera ematen badu).

— Azpiegitura berriak eraikitzen diren kasuetarako (industriaguneak, komertzioak, geltokiak...), derrigorrezko hizkuntza irizpideak ezartzea: hizkuntza paisaia eta zerbitzua euskaraz.

— Zerbitzuak eskainiko diren kasuetan: 1. harrera/zerbitzua euskaraz eta 2. euskara plana, lana euskaraz egiteko konpromisoak (helburuak, ekintzak, epeak...)

— Bertako euskaldunei lehentasuna ematea lanerako, kanpora bizitzera joan behar ez izateko lan-kontuengatik. Lanpostu horietarako profil/titulazio egokirik ez badute, lantegiek beren gain hartzea

Aztertutako adierazleen indizeak eta informazio osagarria eskaintzen diguten indizeak jasota, ondorio orokorrak aterako dira: eragin mailaren balorazioa, adierazle kritikorik badagoen, lehentasunez neurri zuzentzaileak non jarri beharko lirartekeen.

langileen trebakuntza edo lanbide heziketako ikastegiaren eskaintza premietara egokitzea, kasu guztietan ere euskaraz.

— Arau lagungarri edo ondorengo plan partzialetan, eremu horretara datorren enpresa, saltoki edo dena delakoak euskararen erabilera plan edo ziurtagiria izatea baloratzea eta lehentasuna ematea.

— Herri erakundeekiko harreman hizkuntza zehazteko hitzarmenak.

Ondorengo neurri zuzentzaileak

Proiektua gauzatu ondoren hartu beharreko neurriak:

— Harrera-plan bereziak erdaldunentzat, herriko berezko hizkuntza euskara dela erakusteko.

— Sentsibilizazio/Motibazio saioak herritarrentzat, euskararen erabileran atzera egin ez dezaten.

— Funtzionamendu-irizpideak herriko talde eta elkarteentzat (guraso-, kultur-, kirol-...), ordura arte bezala euskaraz funtzionatzen jarraitzeko.

— Hitzarmenak, aholkularitza, diru laguntzak euskara planak garatzeko.

— Euskara ikastaroak, harrera ikastaroak eta mintzalagun egitasmoak, herritarrekin sortuko diren hizkuntza-ohiturak euskarazkoak izango direla bermatzeko.

— Haurrak herriko euskarazko ikastetxeetan matrikulatzeko kanpainak.

— Kulturarteko topaketak: etorri berrien eta bertako biztanleen arteko kulturarteko harremanak sustatzeko eta etorri berriek beren kulturaren berri ematea errazteko

— Bisitariak ugarituko diren kasuetarako, sentsibilizazio- eta kontzientziazio-saioak herriko merkatariekin, euskaraz funtzionatzen jarraitzeko.

6.4 Jarraipen sistema

1. Jarraipen batzordeko kideak

Jarduerak hizkuntza-txostena beharrezkoa badu, jarraipen batzordea prozesuaren hasieratik bertatik osatuko da.

Proiektuaren ezaugarrien arabera, batzordea gutxienez kide hauek osatzea komeni da:

- Udal-ordezkeriak eta gaiarekin zerikusia duten udal-langileak edo adituak
- Herritarrak
- Gizarte-eragileak (ikastetxeak, euskara eta kultura elkarteak, merkatariak...)
- Inplikaturako beste eragile batzuk

2. Jarraipen batzordearen funtzionamendua

Jarraipen batzordeak jasoko du jarduera abian jarri nahi duen enpresa, erakunde edo norbanakoak prestatutako hizkuntza-txostena. Hizkuntza-txosten horretan agertuko da jarduerak eragingo duen ingurunearen gaur egungo errealitate soziolinguistikoaren diagnostikoa, eta jarduerak egoera horretan izan dezakeen eragina.

Hizkuntza-txostena oinarri hartuta, jarraipen batzordeak erabakiko du proiektua bideragarria den bere horretan edo **neurri zuzentzaileak** proposatu behar diren.

Neurri zuzentzaileak proposatzen badira, horiek betetzeko **epeak** ere finkatuko dira, aldi berean. Epe horiek kontuan hartuta, jarraipena egiteko fitxak beteko dira, eta fitxetan azaldutako datuak oinarri hartuta, jarraipen batzordeak aldeko txostena emango dio proiektuari, beste hobekuntza neurri batzuk proposatuko ditu edo kontrako txostena eman, eta egoki irizten dion prozedura hasiko du, proiektua bertan behera uzteko, horretarako aukerarik bada. Azken kasu horretan, gainera, aztertu beharko du zigor-prozedurarik abian jarriko duen, sortutako kalteen ordain gisa.

7. ARAUAK ETA PROIEKTUAK GARATZEKO PLANGINTZA PROZESUAN KONTUAN HARTU BEHARREKO HAINBAT ALDERDI

I

Ikuspegi honetatik oso komenigarria da segidakoak kontuan izatea ELE bezalako egitasmo bat abian jartzeko garaian:

